

TESTU IRUZKINA (10 puntu)

Irakurritako aurreko testua kontuan harturik, idatz ezazu 25-30 lerroko testu-iritzi bat. Testuak, gutxienez, 200 hitz izan behar ditu.

Aukeratu bi gai (A edo B) hauetako bat eta idatzi zure testu-iritzia.

A) Mendekotasun teknologikoak askatasuna galtzea ekar dezake, autonomia intelektuala eta kognitiboa galaraz ditzakeen heinean. Alabaina, askatasuna eta abantailak ere ekar diezazkiguke; izan ere, zeregin aspergarrietatik (kalkuluak, plangintza) libratzen gaitu eta aukera ematen digu balio sortzaile handiagoko jardueri ekiteko. Dilema sortzen zaigu: guk geuk gehiago pentsatu edo AAri gero eta gehiago eskuordetu.

Iruzkindu ideia horiek eta eman zure iritzia: zer jarraitu beharko genuke egiten teknologiararen laguntzarik gabe, eta zergatik? Gero eta gehiago kostatzen al zaigu gauzak ikasi edo memorizatzea? Bizi zintezke teknologia berri hauek erabili gabe? Fidatu ote gaitzake hala Adimen Artifizialak nola beste tresna teknologiko batzuek ematen diguten informazio guztiaz?

B) Hezkuntzaren esparruan, teknologia eta adimen artifiziala erabiltzeak abantaila argiak ditu, hala nola ikasketa pertsonalizatzeko aukera, baliabideetarako sarbidea erraztea eta klaseak dinamikoago bihurtzea. Alabaina, arrisku nabarmenak ere baditu: mendekotasun teknologikoa eragin dezake, sarbide-ezberdintasuna handitu, giza interakzioa murriztu... Onura eta arriskuen arteko oreka horrek hausnarketarako bidea ematen du; zehazki, ikasleen funtsezko gaitasunak ordezkatu gabe, ikasketa-prozesuari laguntzeko teknologia arduraz integratzeko moduez.

Bat al zatoz aurreko paragrafoarekin? Zein dira, zure ustez, teknologia berrien abantaila eta desabantailak? Edonork du tresna teknologiko berberetarako sarbidea edo esparru honetan ere ezberdintasunak daude? Nola jakin dezake irakasle batek bere ikasleek lan bat egin duten edo aplikazio teknologiko bat erabili duten?

“Testu-iruzkinerako jarraibideak”

- Antolatu testua honako hauek jarraituz:
 - Sarrera paragrafo bat zure iritziarekin argi azalduta.
 - Bi edo hiru paragrafo, zure iritziaren aldeko argudioak eta baliozko kontraargudioak garatzeko.
 - Azken paragrafo bat, ondorio gisa.
- Ez egin testuaren laburpenik.
- Adierazi iritzi propioa eta arrazoitua.
- Gogoratu honako hauek baloratuko direla:
 - erregistro zuzena erabiltzea.
 - ideien arteko koherentzia (ez daitezela ideia kontraesankorrak egon edo ez daitezela gehiegi sakabanatuta egon).
 - esaldien eta paragrafoen arteko kohesioa (arreta jarri puntuazio-zeinuei, esaldiko hitzen ordenari eta lokailuei)
 - ortografia- eta gramatika-zuzentasuna.
- Denbora baduzu, zirriborroren bat egin dezakezu zure ideiak antolatzeko.
- Amaitzean, saia zaitez zure idazkia berrikusten.